


MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2021EKO EKAINA

## Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 5,8 egin dute behera, ekainean

**2021eko lehen sei hiletako metatuan, salmentek % 2,4 egin zuten gora**

Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, 2021eko ekainean, urte arteko % 5,8ko jaitsiera erregistratu dute, prezio finkoetan, Eustatek emandako datuen arabera. Aurreko hilaren aldean, 2021eko maiatzaren aldean, salmentek % 0,4 egin dute gora.

### Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

2020ko ekainarekin alderatuta, elikagaien salmentek azalera handietan eta elikadura-kateetan aurtengo ekainean % 6,3ko atzerapena izan dute, eta gainerako produktuek ere % 4,9ko beherakada izan dute.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da urte arteko beherakadaren buru (% 8,8), ondoren Araba (% 5,5) eta, azkenik, Bizkaia (% 4,1).

Aurreko hilaren aldean, azalera handietako eta elikadura-kateetako salmentek 2021eko ekainean % 0,3 egin dute behera elikagaietan, baina ez gainerako produktuenek, % 1,8 egin baitute gora. Lurraldeen arabera, Bizkaian gora egin du (% 1,7) eta Gipuzkoan eta Araban atzera (% 1,4 eta % 0,4, hurrenez hurren).

**2021eko urtariletik ekainera bitarteko metatuan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenten indizeak jarraitzen du joera positiboarekin, eta % 2,4ra iritsi**

da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. Joera horri jarraitzen zaio gainerako produktuen salmenten bilakaeraren ondorioz (% 19,1) –2020ko aldi metatu berekoak baino handiagoak–; izan ere, elikagaien kasuan, ekainera arteko salmenta metatuek % 3,7 egin dute behera.

Lurralde historikoen arabera, orain arteko aldakuntza metatua positiboa izan da Arabaren kasuan (% 5,0) eta Bizkaikoan (% 4,2), eta Gipuzkoakoan negatiboa izan da (% 1,9).

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako enplegatu-kopuruak, azkenik, 2021eko ekainean % 6,5 egin du gora, aurreko urteko hil beraren aldean, eta % 0,9, 2021eko maiatzaren aldean. 2021eko lehen sei hileko metatuan, % 2,6ko igoera ikusi da.

**Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Ekaina 2021 (p)**

|                                                       | PREZIO FINKOAK |            |                  |
|-------------------------------------------------------|----------------|------------|------------------|
|                                                       | m / m-12       | m / m-1    | A (m) / A (m-12) |
| <b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b> |                |            |                  |
| <b>Euskal AE</b>                                      | <b>-5,8</b>    | <b>0,4</b> | <b>2,4</b>       |
| Araba/Álava                                           | -5,5           | -0,4       | 5,0              |
| Bizkaia                                               | -4,1           | 1,7        | 4,2              |
| Gipuzkoa                                              | -8,8           | -1,4       | -1,9             |
| <b>INDIZE OROKORRA sektorearen arabera</b>            |                |            |                  |
| Elikagaiak                                            | -6,3           | -0,3       | -3,7             |
| Beste produktuak                                      | -4,9           | 1,8        | 19,1             |
| <b>ENPLEGU INDIZEA</b>                                |                |            |                  |
| <b>Euskal AE</b>                                      | <b>6,5</b>     | <b>0,9</b> | <b>2,6</b>       |

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

**Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK**

## INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan kontuan hartutako enplegatuen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientepean dauden pertsonak daude, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) enplegatuaren inguruan [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jaso duen definizioari jarraikiz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietan eta elikadura-kate handietan merkataritza-indizea prestatzen elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, ekaineko indizea lagingaren % **90,0eko estaldurarekin** kalkulatu da –haren informazioa uztailean jaso da–.

---

**Argibide gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62*